

Bidaiak

Joxean Agirre

Oporetako bidaiek dimentsio planetarioa hartu dute oso denbora gutxian, gure belaunaldia ozta-ozta Europako hiriburuetara iristen zen bitartean, seme-alabak lau kontinentetan barrena baitabiltza, tarteka mapan nekez koka ditzakegun herrialdeak bisitatuz, Kirgizistan, Transnistria, Uzbekistan, Djibuti edo Bhutan, esate baterako.

Irailean, familiako bazkariren batean bildu eta, demagun, Mediterraneoko uhartetan, Lisboan edo Londresen bizitako pasadizoren bat kontatzen hasten bagatzaizkie, erruki pixka batekin begiratzen digute, irtenaldi horiek asteburuetan egiteko modukoak direlakoan.

Bidaia luzeen kontu hau bizitzaren ardatz bihurtu dute, eta, bat bukatu orduko, hasten dira hurrengoa prestatzen. Pascalek behinola esandakoa behintzat ez dute hartuko aintzat, etxeko langelan lasai egoten ez jakitetik zetozkiola uste baitzuen hark gizakiari makur guztiak.

Hain muturretara joan gabe, balegoke erdi biderik. Nik, esaterako, sei-zazpi aldiz zapaldu dut Venezia eta ez nuke inolako arazorik urtero han hamabost bat egun

pasatzeko. Gauza bera gertatzen zait Praga, Londres, Erroma, Lisboa edo Amsterdamekin edo Tiroleko zenbait bazterrekin edo Zurichekin edo Salzburgorekin.

Badago bidaia luzeak egiten dituztenengan mundua osorik ezagutzeko borondate burugabe bat, gure belaunaldikoengan museorik huts egin gabe hiriburuak ezagutzeko grinarekin konpara daitekeena.. Batzuok arduragabeagoak gara edo ez dugu behar adina heldutasun (Bolañok esan ohi zuen asko kostata iritsi zela heldugabe izatera): *flaneur* batzuen gisan ibili ohi gara alde zaharretako kale estuetatik bazterrik kutreenen bila edo terraza dotore batean eseriko gara segidan eta jendeari begira emango ditugu orduak, azterketa soziologiko merke bezain alferrikakoak egiten. Klean gitarra jotzaile on bat deskubritzeak museoetan maisu lan bat atzemateak adina poz emango digu. Hiriburuetako idazle handien museoak bisitatu izan ditut, baina haien obraren bat birritan irakurrita etxean izateak harrotasun gehiago eman ohi dit.

Magrisek kontatzen duena datorkit burura. Messkircheko plazan idazki bat ikusi

zuen etxe bateko horman: “Etxe honetan bizi izan zen Heidegger” zioen eta bertan bizi zen emakumeari galdetu zion filosofoari buruz. «Ah, bai, zu sakristauaren semeaz ari zara», esan zion. Emakumearentzat sakristaua ezagunagoa zen filosofoa baino.

Lehen bidaiatzeko bitartekoak urriak ziren. Idazle gailego batek uste dut kontatzen duela bazela bere herrian *Perú* esaten zioten arrantzaile bat, beti Perura joatekotan zebilena. Egun batean oso goiz jaiki, bere batela hartu eta herrialde hartara zihoala esanda atera omen zen arraunean, eta ilunduta gero itzuli omen zen saiatu zela baina ez zela iritsi esanez.

Lehen, gainera, ez zen alferrikako bidaia-rik egiten. Gure aitag kontatzen zuen auzoko baserri batean nagusiak hilabeteak zeramatzala gaixorik oso larri. Haren seme bat Azpeitira jaitsi omen zen goiz batez idiekin, eta, eguerdi aldera bueltan gurdia-
ren gainean zerraldoa zekarrela ikusirik, galdetu omen zioten ea aita hila zen, eta ezetz erantzun omen zuen, beste egiteko batzuetara joan zela herrira eta bidenabar hilkutxa hartu zuela bidaia aprobetxatzearen. •

Eskatu gabeko atximurrak

Saioa Iraola

Bizkarrean atximurkada bat sentitu dut, soinean daramadan kamisetari atzetik norbait tiraka ariko balitz bezala. Zer ote da? Zein ote da? Burua itzuli, begiratu eta bi gizon daude nire atzealdean barran trago bana eskue-
tan dutela, eta disimulu aurpegia jarrita edo ezer pasa ez balitz bezala begiratu naute. Gaztetzeko barran nago lagun batzuekin hizketan, larunbata da eta goizeko ordu txikiak dira. Begirada aurreratu dut hizketaldiari jarraipena eman nahian. Itzuli naiz, bada, lagunartera eta berriro ere “ttak” sentitu dut, norbait nire kamiseta larruazaletik urrundu nahian atximurkada ari zaidala. Berriro itzuli naiz eta atzealdean gertuen nuen gizonetakoak begiratu egin nau eta... «Zer pasatzen da? Zergatik ukitzen nauzu? Utzi iezadazu ba-

kean, ez duzu ikusten nire lagunekin lasai nagoela edo? Utzi nire espazioa!», esan diot. «Mozkortuta nago» izan da jaso du-
dan erantzuna. «Eta zer?» erantzun diot.

Atarira atera, arnasa sakon hartu eta erabaki dut ez didala lagunarte goxoa oztopatuko, eta ikusezin bilakatu dut. Nire jarrera ikusita, barkamena eskatzera etorri zait, mozkorraldiaren ondorio dela justifikatzeko asmoz, eta, berriro ere nire mespretxua adierazi ondoren, bakean utzi nau.

Anekdotak bat izan zitekeen, baina zoritarrez ez da hala. Ez larunbatean Leitzan gertatu zitzaidana, ez eta gure herrietako jai eta ez-jaietan gertatzen zaizkigun egoera deseroso eta bortitzak ere. Gizonetako batzuek sentitzen duten gainbotereak sutzen nau, sutzen gaitu. Emakumeok be-

raien ondasun sentitzen gaituzte, hartu, erabili eta botatzeko zaborrak. Baina ez gara zabor, bagara nornahi, izan nahi dugunak izateko etengabeko sokatiran gabiltzanak gara eta gero eta gehiago gara, gainera.

Gero eta ahaldunduago gaude, begirada zikinen, ukitzea nahi ez ditugun bizkar, titi, ipurdi edo alu erasotakoen zein *baboso*-en aurrean errebelatzen garenak, Iruñean, Pasaian, Ordizian, Zumaian, Trintxerpen, Barakaldon, Gasteizen eta eraso bat jasaten dugun kale kantoi eta txoko bakoitzean.

Ez garelako ez bat, ez bi, ez hiru... ahal duntzen ari garelako bidean, botere inposizioari eta gizonen *statu quo*-ari atximurkada egin eta ukabilkadak emateko gai eta lain bagarelako. •